

BANDOA / BANDO (B1-2021)

EROSKETAK ETA ANTZEKOAK EGITEKO APARKAMENDU MUGATUKO EREMUAK ZONAS DE ESTACIONAMIENTO LIMITADO PARA REALIZAR COMPRAS Y SIMILARES

Mugikortasun planaren garapenean Trafiko Ordenantza berria jarri da indarrean. Bertan, bertze gauzen artean, aparkalekuen erregulazio berri bat ezarri da. Lehendabiziko fasean, herritarrentzat erreserbatuko aparkaleku berdeak jarri dira martxan Toki Ona eta Kanttonberrin, denda-gune nagusi horretan plazen txandakatzea bultzatzeko, eta horrela aparkatzeko aukera gehiago izateko.

Orain bigarren faseari ekin nahi diogu, denbora mugatuko aparkalekuak gauzatzeko urratsa ematen. Badira Txartel berdea izateko baldintzak betetzen ez dituztenak, eta erosketak Berako dendetan egin ohi dutenak. Horiei erosketak egiteko denborarako aparkalekua aurkitzea zaila egiten zaie. Horri irteera emateko denbora mugatuko hainbat aparkaleku jarriko ditugu denda-guneetan, zeinetan edozeinek aparkatu ahal izango duen zehaztutako denboramugan.

Zehazki, 20 plaza jarriko dira, hasteko, behar handiena dutela ikusi diren guneetan: 10 Kanttonberrin, 4 Alzate karrikan, 4 Alzateko plazan eta bertze 2 Mukixu Haur Eskola ondoan. Horietan 30 minutuko denbora egonen da aparkatzeko, denden ordutegian. Ordutegi horretatik kanpo aparkatzea libre izanen da. Denbora kontrolatzeko, dendan eskatu beharko da ordu-disko bat, non aparkatzen den ordua zehaztuko den. Ordu edi bat izanen da erosketak egiteko, eta amaitzean ordu-disko hori hartu den denda berean itzuli beharko da.

Jarraibide horiek ongi betetzea erabiltzailearen ardura izanen da, denon mesederako izanen dela kontuan hartuz. Argi dago, denok betetzen baditugu plazak txandakatuko direla eta aukera gehiago izanen dugula aparkalekua aurkitzeko. Horiek betetzen ez dituen bertzeen eskubideen kontra ari da, eta jakin behar du gehiegikeriak kontrolatu eta zuzentzeko neurriak hartuko direla, isunak jartzeko barne, bertze biderik ez bada. Argi adierazi behar dugu Udalak ez duela isunik jartzeko borondaterik, baina arauak hausten dituen bertzeon eskubideak ari da zapaltzen, eta hori ez gertatzeko ardura Udalarena da, eta ardura horri helduko dio herritar guztion onerako.

Herritar guztiak jakin dezazuen argitaratzen dut.

En el desarrollo del plan de movilidad ha entrado en vigor la nueva ordenanza de Tráfico. Entre otras cosas, se ha establecido una nueva regulación de los aparcamientos. En una primera fase, se han puesto en marcha los aparcamientos de zona verde, reservados para residentes en Toki Ona y Kanttonberri, con el fin de impulsar la rotación de plazas en esta zona de tiendas, y así tener más posibilidades de aparcamiento.

Ahora queremos abordar la segunda fase, dando paso a la implantación de aparcamientos de tiempo limitado. Hay quienes no cumplen los requisitos para tener la Tarjeta verde y hacen las compras habitualmente en las tiendas de Bera. A ellos les ha resultado difícil encontrar aparcamiento para hacer las compras. Para dar salida al tema se habilitarán varios aparcamientos de tiempo limitado en las zonas de tiendas, en los que cualquiera podrá estacionar dentro del límite temporal establecido.

En concreto, para empezar se habilitarán 20 plazas en las zonas más necesitadas: 10 en Kanttonberri, 4 en la calle Alzate, 4 en la plaza de Alzate y 2 junto a la Escuela Infantil Mukixu. En ellas habrá un tiempo de aparcamiento de 30 minutos en horario de tiendas. El estacionamiento fuera de dicho horario será libre. Para el control del tiempo se deberá solicitar en la tienda un disco horario en el que se especificará la hora de estacionamiento. Se dispondrá de un tiempo de media hora para hacer la compra y al finalizar habrá que devolver el disco horario en la misma tienda donde se ha recogido.

El cumplimiento de estas instrucciones será responsabilidad de cada usuario, teniendo en cuenta que redundará en beneficio de todos. Está claro que si todos las cumplimos se rotarán las plazas y tendremos más posibilidades de encontrar aparcamiento. Quien no las cumpla estará atentando contra los derechos de los demás y debe saber que se tomarán medidas para controlar y corregir los abusos, incluida la imposición de multas, si no hay otro remedio. Tenemos que dejar claro que el Ayuntamiento no tiene voluntad de multar, pero quien infringe las normas está pisoteando los derechos de los demás, y la responsabilidad de que eso no ocurra es del Ayuntamiento, que la abordará en beneficio de todos los ciudadanos.

Lo que hago público para general conocimiento.

APARKALEKU GORRIENTZAT UDALAK ONARTUTAKO ARAUAK.

Ordutegi mugatuko 20 aparkaleku egokitzen dira honako leku hauetan: 10 Kanttonberri karrikan, 4 Alzate karrikan, 4 Alzate plazan eta 2 Mukixu Haur Eskolaren ondoan.

Toki horiek erabiltzeko araubidea:

- Aparkatzeko gehienezko denbora 30 minutukoa izango da.
- Aparkatzeko ordutegia merkataritzakoa izango da: lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara; jai ez diren larunbatetan, 09:00etatik 13:30era. Ordutegi horretatik kanpo aparkatzea librea izango da.

- Denbora kontrolatzeko, saltoki komertzialean ordu-disko bat eskatu beharko da, eta han aparkatzeko ordua zehaztu. Ibilgailuaren gidariak haizetakoaren barruko aldean jarri beharko du diskoa, kanpotik erabat ikusteko moduan.

- Ordu erdiko denbora izango da erosketa edo kudeaketa egiteko, eta amaitutakoan, ordu-diskoa jaso den establezimendura itzuli beharko da.

- Baldintza horietan aparkatzea doakoa izango da.

- Arau-hausleei Ordenantzan ezarritako zehapen-araubidea aplikatuko zaie.

Merkataritza-ordutegirako mugatzen diren plaza horiek seinaleztatuak egonen dira bertikal eta horizontalki urdin kolore eta zerrenda gorriekin.

Ordutegi mugatuko eremu horietan aparkatzeko mugaren hasiera-data: **2021eko urtarrilaren 11.**

NORMAS APROBADAS POR EL AYUNTAMIENTO PARA LAS PLAZAS ROJAS.

Se habilitan 20 plazas de aparcamiento de horario limitado en las siguientes ubicaciones: 10 en Kanttonberri karrika, 4 en Alzate karrika, 4 en la plaza de Alzate y 2 junto a la Escuela Infantil Mukixu.

Régimen de uso de dichas plazas:

- El tiempo máximo de aparcamiento será de 30 minutos.

- El horario de aparcamiento será el comercial: lunes a viernes laborables, de 09:00 h. a 13:30 h. y de 16:30 h. a 20:00 h.; sábados no festivos, de 09:00 h. a 13:30 h. El estacionamiento fuera de dicho horario será libre.

- Para el control del tiempo se deberá solicitar en el establecimiento comercial un disco horario, en el que se especificará la hora de estacionamiento. La persona conductora del vehículo estará obligada a colocar el disco en un lado de la parte interna del parabrisas que esté totalmente visible desde el exterior.

- Se dispondrá de un tiempo de media hora para hacer la compra o gestión, y al finalizarla habrá que devolver el disco horario al establecimiento donde se ha recogido.

- El estacionamiento en estas condiciones será gratuito.

- A las personas infractoras se les aplicará el régimen sancionador establecido en la Ordenanza.

Las plazas con limitación horaria comercial estarán señalizadas vertical y horizontalmente en color azul con franjas rojas.

Fecha de inicio de limitación de aparcamiento en estas zonas de horario limitado : **11 de enero de 2021.**